

“Santander bekak | DOKTOREGO AURREKO LAGUNTZAK” programa – 2025eko deialdia

Santander bankuak “Santander bekak | Doktorego aurreko laguntzak 2025” programa sustatzen du (aurrerantzean, “Programa”).

I. Helburua

Programa honen helburua da Deustuko Unibertsitatean (DU) doktorego programa batean matrikulatutako ikasleen goi-mailako hezkuntzaren kalitatea eta ikerketa jarduera sustatzea.

Zehazki, prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileei lagundu nahi zaie, matrikularako, ikerketa mugikortasunerako, tesia edo eragin handiko aldizkarietan argitaratzeko edo ikerketa lanak eragindako beste gastu batzuetarako laguntzak emanez (aurrerantzean, “Bekak”).

II. Hautagaitzak

Deialdi honetara Deustuko Unibertsitateko doktorego programa batean matrikulatuta daudenak aurkeztu ahal izango dira, baldin eta bekarik edo lan-harremanik ez badute eskabidea egiteko unean.

Deustuko Unibertsitateak prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko du, erakundearen beraren datu-baseetan dauden beka-eskatzaiaren datu pertsonaletatik abiatuta.

III. Beken kopurua eta zuzkidura

2.000 euroko 15 beka egongo dira.

IV. Hautagaitzak aurkeztea

Hautagai bakoitzak agiri hauek ekarri beharko ditu [eskaera orri honetan](#):

1. Hautagaiaren Curriculum Vitaea.
2. Motibazio-gutuna, finantzaketa lortuz gero zer egitea espero den azalduz: Nola lagunduko du beka honek nire ikerketa ibilbidearen garapenean?

Izena ematea

Beken onuradun izateko ezinbesteko baldintza izango da Programan izena ematea Santander Open Academy webgunearen bidez (aurrerantzean, “Plataforma”), Deustuko Unibertsitateko posta elektronikoa (kontua@opendeusto.es) erabiliz.

- [Plataforma - web orria](#) > “**Quiero Solicitarla**” klikatu.

Beka eman izana jakinarazteko, plataforman erakundeentzat prestatutako kudeaketa sistemaren bidez egingo da.

V. Eskaerak aurkezteko epea eta ebazpena

Plazo de envío de solicitudes	Plazo de asignación
desde el 2 de junio al 15 de octubre de 2025	17 de noviembre de 2025

Esleipen hori onuradunei jakinaraziko zaie, eta une horretatik aurrera 7 egun natural izango dituzte Plataformaren bidez laguntzaren onarpena bideratzeko..

VI. Ebazpena eta beken esleipena

Deustuko Unibertsitateko Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzak erabakiko du **onuradunen** zerrenda, irizpide akademikoak eta ikerketako irizpideak kontuan hartuta.

VII. Onartzea eta aldatzea

Programaren deialdi honetan parte hartzeak esan nahi du hautagaiak oinarriak onartzen dituztela.

Banco Santanderrek beretzat gordetzen du oinarri hauek interpretatzeko eskubidea. Era berean, beretzat gordetzen du Programaren deialdiaren edozein baldintza aldatzeko edo zuzentzeko eskubidea, zati batean edo osorik, edozein unetan; are gehiago, deialdia eten, atzeratu edo ezeztatu egin ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoi objektibo bat kontuan hartuta, eta deialdi honen bidez lortu nahi den inpaktu soziala babesteko helburuarekin, Plataformaren bidez hautagaiak egindako aldaketan berri emanez.

VIII. Programaren fiskalitatea

Bekei une bakoitzean indarrean dagoen zerga araudia aplikatuko zaie, zehazki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz xedatutakoa. Horren ondorioz, batzuetan, erakundeek zerga horren konturako atxikipenak egin ahal izango dituzte, eta bekaren onuradunak urteko errenta aitortpenean dagozkion zenbatekoak sartzeko betebeharra izango du (bekaren onuradunak zerga betebeharrak betetzearen erantzukizun osoa izango du).

IX. Datuen babesa

Deialdi honi aplikatu dakioken datuen babeserako politika Plataforman argitaratutako Pribatutasun Adierazpeneko dokumentuan dago jasota, Lege Oinarri hauekin batera.

X. Jarraipena

Programa amaitu eta bekek esleitu ondoren, Deustuko Unibertsitateak, plataformaren bidez eta horretarako ezarritako funtzionaltasunaren bidez, onuradunak eta bekek esleitu ez zaizkien pertsonak nor diren adieraziko du. Santanderrek, programaren deia egin duenez, informazio hori eskuratu ahal izango du.

Deustuko Unibertsitatea arduratuko da Programaren jarraipen eraginkorra egiteaz, ohiko prozeduren arabera, eta Santanderrek deialdia amaitzean eska dezakeen jarraipenari buruzko informazioarekin dokumentu bat egiteaz.

Kontsultetarako e-maila: Izaskun Urien (iurien@deusto.es)